

ETXALARKO KULTUR ETXEKO LOGOTIPO LEHIAKETA

Etxalarko Kultur Etxeak aurten bere XX. urteurrena betetzen du eta hau ospatu eta bere irudia berritzeko, logo lehiaketa egitea erabaki da.

Logo hau sortzearen helburu nagusia Kultur Etxearen irudia eta presentzia indartu eta zabaltzea da.

Lehiaketaren oinarriak:

1. Helburua: Etxalarako Kultur Etxeko irudi berria izango den logotipoaren diseinua. Irudi hau modu desberdinetan erabiliko da; Kultur Etxean, modu fisikoan, Web orrietan, sare sozialetan...
2. Parte-hartzaileak: Lehiaketa parte hartu nahi duen pertsona nahiz diseinu grafikoko enpresa orori zuzenduta dago. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi diseinu aurkeztu ahal izango ditu, bakarka edo enpresa gisa.
3. Proposamena:
 - Diseinuak originala eta berria izan beharko du.
 - Proposamenak Kultura eta herria isladatu beharko ditu.
 - Irudi alai, dinamikoa, eta bizia izatea bilatzen da.
 - Proposamenak ondorengo hitzak jaso beharko du: **Kultur Etxea** eta **Etxalar**.
4. Entregatu beharreko materiala: diseinuak modu honetan entregatu beharko dira:
 - Paperean: Logotipoa koloretan eta txuri beltzean.
 - CD formatuan: logotipoa koloretan eta txuri beltzean, biak diseinu grafikoan ohizkoak diren formatuetan eginak.
 - Logotipoarekin batera, nahi izanez gero, azalpen labur bat aurkeztu ahal izango da.
5. Lanen aurkezpena: Lana aurkezteko epea zabalik egongo da 2022ko ekainaren 16a barne. Lanak DIN A-4ko kartazal batean entregatuko dira, **Kultur Etxea** etiketa jarrita. Barrenean, gutun itxi batean (txikiagoa) parte hartzailearen datu pertsonalak jarri beharko dira (izen-abizenak, helbidea eta telefonoa).
6. Lanak honako helbidera bidaliko dira: Kultur Etxea, Jauregieta 5, 31760 Etxalar, Nafarroa edo bertako postontzian utzi.
7. Epaimahaia eta emaitza: Epaimahaia segidakoa izanen da; Etxalarko Kulturako zinegotzia, herriko ordezkari bat eta Altxatako kide bat
8. Epaimahaiaren erabakia Etxalarko web orrian (www.etxalar.eus) eta sare sozialen bitartez ezagutzera emanen da.
9. Erabakia: Epaimahaiak, aurkeztutako lanek ez badute guttieneko maila ematen, saria ez emateko eskubidea izanen du.
10. Saria: 150€.
11. Jabetza intelektuala: logotipo irabazlearen jabetza bakarra Etxalarko Udalarena izango da eta honek hau erabiltzeko askatasun osoa izango du.
12. Oinarrien onarpena: Lehiaketa parte hartzeak oinarri hauek onartzea eta epaimahaiaren erabakia onartzea adierazten dute.

Etxalar, 2022ko apirilaren 25